

Hemen dira Lazkaoko festak



Arg.: Dioni



Zure argazkien errebe-
latuan espezialduak

Polaroid Autofocus-Data Kamara

+

Foto Sistema pelikula, 24 argazki

+

Argazkilaritzaren historiaren komikia



10.000 PZTA.

• Nekolalde, 1
Tel. 88 93 25
20700 URRETXU

• Pza. Domingo Unanue, 1
Tel. 88 93 25
22040 ORDIZIA

Egunkaria ren VI. HERRI KROSA

ANTIGUA - DONOSTIA

apirilak
28

guzako
1 etan

ARIAN BIDAIAK
agentziak PARISSA
BI BIDAIA
zozketatuko ditu.

- Ibilbidea: 10 Km
- Kuota:
- Aurretik: 1.000 pzta - 40 Libera
- Egun berean: 1.200 pzta - 50 Libera
- Inskripzio opea: apirilak 18tik 25ra
- Korrikalari guztiei KAMIXETA bana oparituko zaie
- IZENA EMATEKO tokiak:

A N A B A	
Gasteiz	Lejari kirolak
B I Z K A I A	
Bilbo	Gisasola kirolak
I P A R R A L D E A	
Baiona	Peytavin Sports
Hendaia	Patrice Caroe Kayac
N A F A R R O A	
Iruñea	Atanasio Kirolak
G I P U Z K O A	
Andoain	Ezeiza sport
Arrasate	Loramendi Kirolak
Azapeltia	Shanti Lazkano
Bessain	Urrutia kirolak
Bergara	Xan Martin kirolak
Bilabona	Albizu kirolak
Donostia	Platero taberna
	Mner kirolak
	Apalategi
	Laster
	Alzugarai
	Roberto s. Arnevi
	Zubeldia kirolak
	Etxebeste kirolak
	Askasibar kirolak
	Mitxel kirolak
	Gonzalez kirolak
	Arbe kirolak
	Joseko Sport
	Lizarraide kirolak
	Susperregi kirolak
	Arriar kirolak
	Etxaniz kirolak
	Nere Sport
Eibar	
Hernani	
Iruñ	
Legazpia	
Ordizia	
Onati	
Orereta	
Tolosa	
Urretxu	
Zarautz	

Antolatzailea	Leguntzaileak
	
Babesleak	
	
	



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrek Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Al bisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Rufino Iraola,
Edurne Albizu, Izaskun Salazar,
Gabino Murua, Nagore Goiburu,
Iraida Martin, Koldo Urrestara-
zu, Zorion Insausti, Fermin Jau-
regi eta Joxepa Madariaga.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 5.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Gaztaren kanpaina hasi da

Idiazabal gazta berriaren
aurkezpena egin zen apiri-
laren 10ean, Ordizian. Udaletxeko batzar aretoan,
Pedro Subijana sukaldari-
ak izan zuen gazta den-
boraldiaren irekiera ofizia-
laren ardura. Berak ebaki
zuen lehen gazta.

Dena den, protagonista
gehiago ere izan zen. Mi-
xel Lekuona Makeako
(Lapurdi) erretoreari ome-
naldia eskaini nahi izan
zuen Idiazabalgo Gaztak,
Ordiziako Gazta kofradiak
eta Udalak, gaztaren alde
egindako lanagatik. Ipa-
rraldetik hegoaldera maki-
na bat bidaia eginak omen
ditu gazta egiteko sekre-
tuen berri erakusteko as-
motan. "Hemengo gazta,
hemengo ardien esneare-
kin egiten dena da", esan
zuen Lekuonak. "Hegoal-

deko zenbait artzain ha-
siak dira atzeritik ardiak
ekartzen, baina denon ar-
tean hori garbitu egin be-
har dugu", gaineratu zuen.
Iparraldean horixe egin
zuten: ardi arraza garbitu.

Elena Elizalde, Jabier
San Vicente eta Queseria
Pastor Vasca ere omendu
zituzten, iaz gaztarik erre-
gularrenak egiteagatik.
Juanbi Erauskin alkateak,
Gazta kofradiako kidea
bera, esan zuenez, orain-
txe da gazta berria jaten
hasteko momentua.

Irailaren 11n

Hurrengo azoka berezia
ekainean, mugaz bestalde-
ko azoka izango da berau.
Orain arte, Altsasu eta Ez-
peletan egin dira. Ordizia-
ko Gazta txapelketa ospe-
tsua, berriz, irailaren 11n.

BOTA BERTSOA



Aitor Sarriegi

Zeri diozu alergia?

*Doinua: Bizia ez da nehoiz
egoiten*

Udaberriko alergia-festan
kokau die gaurko gaie
nik dakiala ezte bate ta
halaxe da nere nahie
suturretik zintz, begitik malko
hartu orduko usaie
alergidunei etzaie allau
oso urtaro lasaie
paradisue behar lukena
inpernu bihurtzen zaie.

Ekain-Uztako ebaluazioi
batzuk polenai bezela
gezurti eta pertsona txurii
hautsen antzea bestela
etzat gustatzen hitz potolokin
dabilen gizon ustela...
Azkeneako bat eta beste
danak gertu dabilzela
kontuatu naiz neoni ere
alergidune naizela.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Hasi zaitezte behingoz lanean (Legorretako EAri erantzunez)

Legorretako EAJ-PNV-ren Udal Taldeak eta Alderdiaren Uri Buru Batzarak, EAK asteburu honetan (martxoak 30-31) zabaldu-tako orriari erantzun nahiean ondorengo zehaztasun eta adierazpenak egin nahi dituzte:

* Lehen lehenik, gure **harridura** azaldu nahi genuke orain, urte bete beranduago, Udaletxe berriaren osaketa, ardura eta batzorde banaketaren gaia plazaratzen duzutelako.

EAKo zinegotziek eta beren gaineko arduradunek ere ondo asko dakite Udaletxe berria osatzeko garaietan PNVk batzorde bana eskeini ziela bai HB bai EAri. Beraz, gaur egun, HBk bi batzorde izatearen ardura-dun bakarrak zuek zarete, bere garaian, zuen ogibideak ikusita, eskeini zitzazuen Sanitate Batzordeari uko egin zenietelako.

* Orain arte ixilik egon bagara ere, uste dugu iritsi dela momentua, are gehiago zuen jarrera ikusita, publikoki gogorarazteko Udaletxeko beste gainuntzekoek, zuek ez bezala, urtebete darماغula lanean.

Zuen alperkeria nabarmenki azaldu duzute behin eta berriro, batzordetara ia apenas azalduz eta honen ondorioz plenotara informa-

ziorik gabe joanaz, banatzen zaizuen dokumentazioa ez irakurritz eta Jaietako Ba-tzordean esan zenu-ten bezala, "batzordetara bakar ba-karrik entzutera gatoz" ja-rreara azalduz.

* Legorretako herriaren aurrean salatu nahi dugu zuen jarrera "pasota", batez ere, ikusirik zer nolako jarrera izan duzuten Urteko Aurrekontuekin.

Herritar guztiek, EAKo zinegotziek ezik, ondo asko dakite zein garrantzitsua den Udaletxearen iharduerarako Urteko Aurrekontua, bertan adierazten bait dira zeintzu diren urte horretarako lehentasunak eta dagozkie-kin diru partidak. Hala ere, Aurrekontua onartzeko ple-noan, bertan genuen EAKo zinegotzi bakarrak, aurrekontua irakurri ere egin ga-be, informazio faltaren ait-zakiaz abstenitu egin zen.

Pili Martiarenaren infor-mazio falta ez da datuak edota informazioa ukatu zaiolako, baizik eta aurrekontuaren lehen esaldia ere irakurtzeko denbora eta la-na hartu ez duelako.

* Bukatzeko, dei egin nahi genieke EAKo zinegotziei arduratsu joka dezaten, kan-potik etortzen zaizkien ira-dokizunak alde batera uzte-ko eta, nahiz gobernua nahiz oposizioan, behingoz lanean hasteko Legorretako herriaren alde.

Legorretako EAJ-PNV

Zaldibia gazteriarekin eta harro!

Zer izango zen erabat ez genekien eta hainbesteko jende pilaketak sor zezake-naren beldurra, dagoeneko ustela gertatu da.

Hara zer ikusmira izan dugun Aste Santu honetan. Ostegun goiza... irudi ikus-garria Zaldibiko kalean. Milaka gazte. Akanpale-kuak, etxebizitzak gazte-entzat, bazen garaia!

Behingoz oinezkoak aurre hartu autoari, zein on-gi! Irratiaren oihu libre eta ausarta lau haizetara... Goi-goian eguzki gorri-gorria gazteria indartzen... babes-ten.

Gure begiek, gure biho-tzek zirrara hau bizi izan zuten 1996ko apirilaren 4-5-6an. Pozik eta harro sentitzen gara gure herri txikia Euskal Herriko gazte topa-gune izateaz.

Zorionak gazte guztioi, Jarrai eta Gazteriaren gida-ritzapean, aurrez, egun ho-rietan eta ondoren egin du-zuen lanagatik. Hori auzo-lana! Bejondeizuela!

Udal honen errekonozimendu osoa duzue. Eta po-zik eta harro sentitzen gara zaldibitar guztiok erakutsi dugun jarreragatik ere. Errespetatzen dakigun he-rria garela demostratu du-gu eta errespetoa merezi dugula garbi geratu da.

Udal hau harro, oso harro sentitzen da herri honetaz!

* Mila esker Jarrai eta Gazteria erakundeei espe-rientza ahaztezina gure he-rrian bizitzeagatik.

* Mila esker Zaldibiko gazteei antolakuntza eta borondate paregabea era-kutsi duzuelako.

* Mila esker herritar guz-tioi, bejondeigula zaldibi-tar guztioi.

Alkatea

Orain txapeoan

Goierriko preso politi-koek, bataz beste 8-12 kilo galdu dituzte 15 eguneko gose greban. Gose greba bukatu dute, baina hasita-ko borrokarekin jarraituko dute; hau da, Euskal He-rrira ekarriak izan daite-zen, legeak horrelaxe dio-lako eta beraien eskubidea delako.

Txapeoan daude orain. Baina zer da txapeoa? 24 orduz zelda barruan ego-tea, eguzkirik ikusi gabe, haizerik hartu gabe. Kar-tzela askotan argi naturalik gabe, leihoak txapa ba-tzuekin tapatuta baitaude. Zelda askotan izugarritzko hezetasuna daukate eta mugitzeko tokirik ere ez dute.

Pentsa egoera honetan zu nola egongo zinatekeen.

Senideak

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN



GESTORIA Biok

(BANDRES)

ASEGUROAK

AHOLKULARITZA LABORALA ETA FISKALA

JUBILAZIOA, BIZITZA, ETXEBIZITZA

ETA KOTXE ASEGURUAK

Goierrri, 12
behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

TXANDAKA

Iepa Arantxa!

Zukin izketa nator.



Akordatzen al'tzea Ikastolan Pottokak kontatzen ikasi gendula matematika eta txotxekiñ'e lanak eindakok geala?

Akordatzen al'tzea Lizeo zaarren, nik zu zirikau eta ingleseko irakasleak zu bialdu ziñuztela kalea?; "au injustizi bat da" esanez jun'tziñen...

Gogon al daukezu Goierriko Eskolako mutilek ematen zizkiuen lanak, nei alako gustatzen zizatela, bestek ez niñula paken uzten...? eta urrengo urteko Istitutoko futbol saioak?

Majiña bat kilometro ein dittu elkarrekin kanbiopeko BH bizikletan'e!: abuztuko atxalde berotan, kixkaldu bearren, etxen "e'tzaizte jun" esanakatik, Atauna pare bat o iru buelta iñ itturri guztitan ude eanez eta bertako launek bixitatzea eta geo Zaldibia. Zelaan osaba-izebak bixitau, esne preskoa ean eta illuntzeako etxea.

Amai gezurre esan eta Gaztelu mendia jun giñen ba jai baten'e? Earra buelteal!

San Joanetan ollasko errekan jan eta eandako bi baso ardok naikoa izan giñutzen "moxkortzeko", parre lasai itteko...

Fuengirolan "fin de'estudios"eko biajea e'tzan txarra izan, ez orratio!

Laun asko giñutzen, baño "seiok" beti daneako apartaeziñek, xelebrekeritan apartak giñen.

Nere aurtzaroko zatie zea zu're; orreatio, ni ill arte nekin biziko zea Arantxa. Gero arte.

Joxepa Madariaga

'Behi eroak' direla eta, haragi gutxiago kontsumitzen al duzu?



Pakita Barandiaran

66 urte, baserritarra

Garingoa

Berdin. Nire harakinak hemengo haragia saltzen du, nire auzoan hazten dena. Nik lasai eramaten dut. Almazen handietatik nekeza-go eramango nuke.

Julio Arraiza

66 urte, erretiratua

Beasaingoa

Gutxiago. Hemen 'behi erorik' ez dagoela esaten dute, baina gezur asko esaten da. Erosten dudanean, Labelduna erosten dut.




Juani Peñagarikano

53 urte, baserritarra

Zegamakoa

Ez, berdin kontsumitzen dugu. Hemengo haragia jaten dugu eta etxekoa ere asko edukitzen dugu. Beraz, lasai gaude.

VOLVO



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

OLAGI

sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Enkarguz bazkariak
eta ospakizunak

☎ 88 77 26

ALTZAGA



KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
Tfno.: 88 51 68
ORMAIZTEGI



GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfinoa: 88 87 02

BEASAIN

ZINEA

GOIENIZ, zine kluba:

'Posibilidad de escapar-te', Apirilak 25, 21:00etan Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

'El color de la noche', Apirilak 29, Herri Zine-man, 20:30ean.

BEASAIN:

'Babe, el cerdito valiente' Ostirala 26: 22:15; larunbata 27: 19:30 - 22:15; igandea 28: 17:00 - 19:30 - 22:15; Astelehena 29: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Babe, el cerdito valiente' Larunbata 27: 19:30 - 22:15; igandea 28: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 29: 19:30.

'La red' Asteazkena 1: 19:30 - 22:15.

'Jumaji' Ostirala 3: 22:15; Igandea 5: 16:45 - 19:30 - 22:15. Astelehena 6, 19:30.

'El demonio vestido de azul' Larunbata 4: 19:30 - 22:15.



'Posibilidad de escape'

Paul Schrader (EEBB, 1991)

Johnny droga trafikazaila da eta jende handikiarentza-ko enkarguak eramaten ditu bere limusinean. Ez du kale bazterretan trapitxeatu beharrik eta beraz, drogazaleen ohiko inguru ustel eta arriskutsutik urrun mantentzen da. Bere bezero taldea, yuppie, bankari, ogibide liberaletako jende, NBE-ko diplomatiko eta bestelako jende ahaltsuz osatuta dago. Jatetxe dotore eta punta-puntako klubetako hormen artean izkutatutako mixeri eta faltsukeriaren agerpen tristea.

Negozio ona izan arren, Johnny ez dago eroso eta aspaldiko neskalaguna —benetako maitea— azaltzean dirua aurrezten saiatuko da, egunen batean mundu ilun hori utzi eta bizimodu berri bati ekiteko asmotan.

ANTZERKIA

IDIAZABAL:

Maiatzak 4, Ttanttaka taldearen 'Umekeriak' antzezlan, Guraso elkar-teko aretoan, 22:00etan.

ORDIZIA:

Apirilak 26, Gorakada-Parapote taldearen 'Buenas Noches' antzezlan, Herri Antzokian, 22:15ean. Sarrera 600 pezeta. Gazteleraz.

BERTSOAK

LAZKAO:

Apirilak 26, Jon Enbeitak eta Irene Ajuariarekin bertso-paperekin saioa, Azeria Zinemak, 22:00etan.

MUSIKA

BEASAIN:

Apirilak 27, Lizarrako abesbatzaren kontzertua Parrokian, 20:30ean.

Maiatzak 4, Oroith abesbatzaren kontzertua, Parrokian, 20:30ean.

AURKEZPENA

BEASAIN:

Apirilak 25, Xebe Diezen 'Los refranes del tiempo' liburuen aurkezpena, Udal Liburutegian, 19:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Apirilaren 28ra arte, Manu Airasen pintura erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

**OTEÑE
ERRETEGIA**
Orain sagardoa txotxetik!

Larraitx bidea

GAINTZA

☎ 88 98 48



IBAI - ONDO

**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN



MAIZPIDE
euskaltegia

XXII. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

Maila guztiak euskalduntzen, alfabetatzen, alfabetatze teknika eta sakontzen

- **UZTAILEKO IKASTAROA:** Uztailaren 1etik 19ra.
- **ABUZTUKO IKASTAROA:** Uztailaren 29etik abuztuaren 23ra.
- **IRAILEKO IKASTAROA:** Irailaren 2tik 27ra.

MATRIKULA MAIATZAREN 13TIK AURRERA.

HABEren dirulaguntzaz. • **DEITU ETA EMAN IZENA**

Tel.: 88 92 31 - 88 92 32


LAZKAO

Maiatzaren 3tik 12ra, Loinatz abesbatzaren X. urteurrena ospatzeko erakusketa, Usurbe Antzoki-ko erakusketa-aretoan.




Maiatzaren 4ra bitartean, Xanti Iruretagoienaren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Maiatzaren 5etik 24ra, Gema Conderen erakusketa, Aterpe tabernan.



ORDIZIA:

Apirilaren 26ra bitartean, Jose Antonio Gomez-en pintura erakusketa, Barrenan.



III. Igartza, abentura eta misteriozko nobela-sarirako deialdia egin du te Beasaingo Udalak, CAF eta Elkar argitaletxeak. Jatorriz euskaraz idatziak izan behar dira. Gaia librea den arren, guztien ardatza, abentura edo misteriozko kontakizuna izan beharko da. Lanek gutxienez 50 folio izango dituzte. Saria bakarria izango da: 500.000 pezeta. Elkar etxeak lana argitaratu egingo du. Irailaren 13ra-ko aurkeztu beharko dira lanak, Beasaingo Udaletxeko Euskaraz zerbitzuan. Informazio gehiago bertan aurkituko duzue.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Apirilak 28, Arantzazu-Enaitz-Duru.

Maiatzak 5, Urkulu-Okartxategi-Araoz.

Erretiratuentzako mendi-ibilaldiak:

Maiatzak 4, Madarixa-Xoxote (Izarraitz)-Madarixa.

Idiazabalgo mendizaleak:

Apirilak 28, Behorlegi.

Maiatzak 1, Idiazabal bidez bide.

Maiatzak 5, mendizaleen festa.

Ordiziako mendizaleak:

Apirilak 28, Azpeitia-Xamiño-Zumarraga.

Maiatzak 5, Lizarrausti-Etxegarate.



GOARDIAKO FARMAZIAK

Apirilak 23: Urbizu
24: Atorragasti
25: Azpilikueta
26: Jauregi
27-28: Atorrasagasti
29: Laurnaga
30: Cuesta

Maiatzak 1: Arriola
2: Urbizu
3: Atorrasagasti
4-5: Arriola
6: Azpilikueta
7: Jauregi
8: Laurnaga
9: Cuesta

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

Renault 18, diesela salgai. Zerrail zentralizatua, elebailuna elektrikoak, direkzio lagundua eta extrak. 80 19 93.

Kanping karroa salgai. Arantxa. 18 04 06.


Txakurrak salgai, Collie arrazakoa, emea, hiru urtekoa, marroi kolorekoa. 889668. Gaueko 9etatik aurrera deitu. Jesus.

Etxebizitzak:

Ormaiztegin pisua salgai. Handia, berritua eta dena kanpoaldera. 72 27 94.

Bestelakoak:

Martxoaren 8an eratzima gañdi eta oraindik arrastorik gabe bazaude, deitu 16 02 82 telefonora.



Zeurea delako, zatoz
Euskal Eskola Publikora.

OIANGUREN BATXILERGO INSTITUTUA - ORDIZIA

☎ 88 08 62

- Kalitatezko heziketa, euskalduna eta dohainik.
- BBB eta UBIko ikasketetan esperientzia.
- Heziketa integrala: gaitasun eta baloreen tratamendua geletan aplikatua.
- Eleaniztasuna: Ingelesa ezezik frantsesa edo alemaniera ere ikasteko aukera.
- Aukera zabala ikasgai aldetik.
- Erreformatarako prestatua.

IZEN EMATEKO EPEA: Maiatzaren 2tik 17ra (9.30etatik 14.30etara)
Edozein gauza argitzeko etor zaitez Institutura

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



ARANDIA

Garajea

AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g

Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa

OLABERRIA



Ducci D303 Eredua- 6.950 Pta.

Zenbait rehetasunek biziki jazten dute

Ducci D96 Eredua- 7.550 Pta.

Begiradarekin liluratzeko diseinuak. Zure estiloari doazkion moduak. Punta puntazko modaren xarma. Multipticasen Ducci'96ko, bilduma eskusiboa da. Eguzki lente graduatuekin, zure beharren arabera. Hurbil zaitez eta ezagutu ezazu.



Gure mailegu txartelarekin ordain ezazu 3 hilabetez kargurik gabe.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE
Ibargaray, 16 • BERGARA
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Bidebarrieta, 2 • EIBAR



Fermin Jauregi,

Eusko Labelaren produktu azterkaria

Dakizuenez, bolada honetan gehiegi en-tzuten ari gara zori-txarreko "behi eroen" gaixotasuna. Hori dela eta, egunero egunkarietan datorkigu berriren bat zer nola segituko duten neurriak hango abereen haragi edo okela ez dadin honantz etorri, berdin guregana edo beste Europako herrialde-etara, inork ez baitu badaezpada ere jan nahi okela hori.

Gaixotasun hau "behi ero" edo "BST - Encefalomientis Espongiforme Bovina" deritzona, badiira 10 urte inguru (1985) azaldu zela lehenengo aldiz, baina orain arte hortik zehar ibili da gure zorionerako: Ingalaterran gehienbat eta baita kasuren bat edo beste Suiza, Irlanda edo Frantzia.

Oso informazio gutxi dago orain arte gaixo honetaz, bai nola sortu den, nola kutsatu edo besteetara pasatzen den edo zer egin behar den zer animalik daukaten jakiteko benetan. Orain arte ez dago garbi nola pasa daitekeen pertsonetara, "Jacobs" izeneko gaitza berdina baldin bada behintzat. Janaren bidez, noiz azaldu lehenengo sintomak, e.a.

Egia dena da notizi honek alarma izugarria sortu duela, baina interes ekonomiko handiak daude jokuan eta ingelesak galduko dute gehien, baina denontzat iritsiko da. Beraien esaten ari diren 4 milioi buru horiek badituzte, lagun-

"Behi eroen" eragina gure artean

tza jasoko dute Europako Elkarteko aurrekontuetatik. Birtartean, gaixorik ez daukagun beste Estatuak, nolabait txalotzen ari dira neurriak gogor-rrak izan daitezen (okela ez dadin etorri).

Baina guk hemendik ikusita uste dugu lehenengotik behintzat honela gaitza azaltzeak eta nahiz eta urruti izan, okel kontsumoa gutxituarazi egiten duela, lehenetik indartu ezinik dagoena eta arriskua dago beste produktu batzuetara jendea aldatzeko.

Hemen lasai egon gaitezke gure abere okelaren osasunarekin. Batik bat gainera Goierri mailan, bertako baserrietako txekor edo behi haragi asko saltzen baita harategietan eta oraindik garanti gehiagorekin, egiten diren kontrol-analisiengatik, "Euskal Okela" izenarekin eta "Eusko-labelaren" barnean saltzen dutenak, dagoeneko mordoxka dira Goierri: 5 Beasainen, 4 Ordizian, 1 Seguran, 1 Ormaiztegin eta 1 Ataunen, orain arte, baina gehiago ere izan daitezke.

Baina harakin hauek behar hainbat txekor edo okela izateko, esan behar da baita, gutxienez 150 Goierriko baserri-tarrek, naturalki hazitako ganaduarekin baliatzen direla: etxeko belar eta pentsu garbiak jandakoak.

Harategi hauek errez eza-gutzen dira kanpotik eta baita ere barruan dituzten "Euskal okela-baimendutako harategia" edo beste "kalitatea" hiruki batean ipintzen duten ezaugarrietatik eta batik bat harategian okela erosi ondoren emango dizuten etiketa, horretarako eskatu behar duzu "Euskal okela kalitatezko euskal labelarekin".

ERREZETA



Luis Espinosa
Etxe-Zuri Sagardotegia
Olaberria

TXOKOLATE TRUFAK

Osagaiak:

Kobertura txokolatea-tableta 1, esne kondentsatua, cognac kopa 1/4, ron kopa 1/4, txokolate fideoak.

Txokolatea "baño marian" jarri. Biguntzen denean, esne kondentsatua, koñaka eta rona gehitu. Dena ondo nahastean, hozten utzi. Txokolatea gogortzen denean, bola batzu egin eta fideotan pasa dena estali arte.

ELIKADURA



Zorion insausti

Dietetikan diplomatua

Zientzilariek eta gutariko askok H₂O bezala ezagutzen dugu. Horrela, bere izakera osoa murriztua izan da. Urak, guri, zer erakutsi asko digu.

Elikadura arloan kokaturik, edonon dago ur prezia-tua. Gorputzak dituen behar eta funtzio ugariak betetzeko elementu hau ere derrigorrezkoa da. Hortik bere garrantzia esaterakoan janaririk gabe denbora luzez bizi gaitezkeela, baina ez urik gabe.

Esan daiteke elementu honek ez du-

Ura beharrezkoa


la kaloriarik, orduan ez du gizentzen. Asko edanez gero eta kanporatzen ez bada, puztu egiten da gorputza, gizendu denaren irudipen ez atsegina agertuz, baina ki-loak gora oso gutxi eginez.

Jatorduetan gutxi

Maiz galdetu izan didate, ea jatorduetan ona den ur asko edatea. Asko ez da komeni edatea, digestioa zaildu egiten baitu. Urdailak digestioa egiteko bere zukua isurtzen duenean, ur asko badu kantitate handiagoa isuri beharko du ja-

narira iristeko eta bere nekea handiagoa izango da. Berdin gertatzen da estea- rekin. Orduan komenigarriagoa da jatorduetatik kanpo edatea, baina noski, zerbait jaterakoan digestiorako eta irensteko lagungarri bezala, ur pixka bat ona da. Elikadura zu- zen baterako elikagaien kantitate egokia bezain garrantzitsua da digestio ego- kia edukitzea. Ondo-rioz, egunean 1,5 - 2 litro ur edan behar da normalean eta gehienbat sabela hutsik dagoenean.

Laburpen gisa, uraren pa- pera kontuan edu- kitzekoa da, baina ez dugu ahaztu be- har gure sukalde aberatsean badugula janari gehiagorik. Elikatzerakoan de- netarik jan behar da, baina pasatu gabe (urarekin bezala).



LEKIM HARROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK

Ibabe industrialdea, 11
☎ 16 12 83

LAZKAO

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: **88 90 17**

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK

GARBI *autoserbizua*

- Garbiketa, argiztaketa eta lehortze katea.
- Pulitu eta briluztatzea.
- Neumatiko eta olio aldaketa.
- Espezialitatea: autoen barru, moketa eta tapizerien garbiketa.
- Motoren garbiketa.

Industrialdea. ☎ 88 27 30 - ORDIZIA

Mobil
Lubricantes



Aste Santu beltza

4 goierritar hil dira Aste Santuko oporraz gozatzen ari zirela. Apirilaren 16an, Joseba Jaka zegamarra Cadizen, itsasoan izandako istripuan; apirilaren 13an, Arantxa Etxezarreta lazkaotarra eta bere urte beteko alaba, Amaia Otegi ordiziarra, Burgos aldean, furgoneta errepidetik atera ondoren (Peio, Asier eta Garazi Otegi senar eta seme-alabak larriki zauritu ziren); eta Jaka aldean, Xabier Jimenez beasaindarra.



Juan Mari Jauregi

Gobernadore Zibila hiltzeko oso informazio zehatza zuela ETaren Donostia koman-



20.000 gazte Zaldibian

Gazte Topagune arrakastatsua egin zen, apirilaren 4tik 6ra. Jarrairen esanetan, 20.000 lagun inguru bildu ziren. Lehenengo egunean Guardia Zibilak Zaldibiko sarreretan jarritako kontrolek ez zitutuzten milaka eta milaka gazteak belhurtu. Bertako Udalak "inork hautatu gabeko Gobernadore Zibil jaunaren agindupean dagoen Guardia Zibilaren jarraera" salatu zuen. Antolatzaileen esanetan, Zaldibian elkartu zen, "Euskal Herria askatuko duen nukleo gogorra". Zaldibiako Udalak antolatzaileak zoriondu ditu izandako arrakastarengatik. (Esker eskutitza 'Eskutitzak' sailean duzue)

doak, jakinarazi zuen Gipuzkoako Gobernu Zibilak. Legorretarraren ohiko ibilbideak eta abar ageri ziren Astigarragako etxean atzemandako dokumentuetan. Gainera, atentatu hau laster egiteko asmoa zutela zabaldu du Gobernu Zibilak, Madrillgo Gobernu berria osat-

zen denean bere postua utzi beharko baitu.

Jokin Aldanondo

Beasaingo preso Ceutatik Martutenera ekarria izan da, bere aitaren gaixotasun bat dela medio. 10 urte darimazki kartzelan Jokin Aldanondok.

Loinaz Olano

Beasaindarra atxilotu egin zuen Ertzaintzak apirilaren 2an, Ordiziako bere etxean. Aurreko egunean, Jabier Irastorza, bere mutil lagunaren bila aritu ziren Beasain eta Ordizian, ustez Donostia komandoarekin zerikusirik duelakoan. Baltasar Garzon epailearen aginduz egin ziren atxiloteta eta etxe maketak. Apirilaren 3an Entzutegi Nazionean deklaratu eta aske gelditu zen Loinaz.



Bellota Limas

Idiazabalgo enpresako zuzendaritzak 69 langile ez kaleratzea erabaki du. Berriz kokatuko omen ditu. Limatako komiteak "garaipentzat" jo du albisteak.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfona: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 80 29
BEASAIN



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



AEK-k antolatutako V. txiste lehiaketaren irabazleak hauek dira, ikasleen osatutako epaimahaiaren arabera: Emilio Hernandez zaldibiarra, Alaitz Sarasola ordiziarra eta Tere Rodriguez beasaindarra. Afari eta 10.000 pezetako bono bana jaso dituzte oparizat. Zorionak hiruroi!



Ondo ikusten duzue bai. 11 kiloko arbia da. Mutiloko Gaztiñari Errotako soroan arbi buru handiak egin dira aurten. Orain arte ez omen da horrelakorik gertatu inoiz. "Aurten, berriz, 7-8 kiloko arbi ugari atera dira gure auzoan. Eguraldi lehorragatik izan daiteke", adierazi digu Kontxi Aldasorok.

Bilore

Zaldibiko enpresako zuzendari orokorrak, Inazio Arrietak, dimititu egin du, administrazio kontseiluarekiko ezadostasunak zirela eta. Jose Antonio Marin Biloreko le-hendakariak hartuko du Arrietaren lana.

Era berean, Bilorek 200 milioi pezetako mozkinarekin espero ditu aurten, azken 4 urteetan dirua galdu eta joan zen urtean egokitzapen prozesua burutu ondoren. 174 milioiko kapital zabal-kuntza egin du. Horrezaz gainera, 350 milioi inbertitu ditu produzio prozesua egokitzen.

Euskaltzain urgazle

Horrelaxe izendatu du Euskaltzaindiak, Dionisio Amundarain itsasondoa. Urgazleak laguntzaile esan nahi du. Euskaltzaindiaren helburuak betetzen laguntzea izango da Dionisioren eginbeharra. Guztira 158 urgazle ditu euskararen akademiak.

Eskolara bizikletaz

Beasaingo Txindoki institutuko ikasleak bizikletaz joango dira eskolara maiatzaren 3an. 'Bizikletaren eguna' izendatu dute egun hau. Otsailan institutuan bertan 2. Logsekoek antolatu zuten 'Ingurugiro astea' ren ondorengatik dator egun hau.

Aste horretan inkesta egin zuten ikasleen artean. Balorazioa hauxe: paper (paperezko mukizapiak, eskolako materiala...), ur eta argi erabiltzen dugu. Kotxea ere gehitxo erabiltzen da. Plastikozko poltsak asko aprobetxatzen dira, erabili eta ez dira botatzen. Berziklaketari buruz, jendeak ondo erantzuten du, batez ere papera eta beira berziklatzen da. Hori bai, kontzientziazio kanpaina gehiago egin behar lirateke, ikasleen esanetan.


Beasaingo Udaleri eskerrak eman nahi dizkie Txindoki institutuko ikasleek, bizikletentzat aparkalekuak jartzeko eskaera onartzeagatik.

Joakin Aldanondo

BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastila, tubo eskape, bateriak

Errota Poligonoa (IDIAZABALgo sarreran) ☎ 80 02 57



LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

RAM yogurt-a

Naturala eta
zaporeduna25
Desnatatua27
Gatza
Fina eta itsasokoa...35



1915etik



resti

HIJOS DE URTEAGA CB

Nafarroa Etorbidea, 15 BEASAIN ☎ 88 09 77

Ura

5 litroko ontzia95
Insalus 6 x 1,5 l.270

Ardoa

Don Simon (Beltza, Gorria,
Txuria)150

JOSEBA JAKA ZEGAMARRA ISTRIPUZ HIL ZEN APIRILAREN 16an Beundako haizeak zabaldu ditu errautsak

Joseba Jaka zegamarra eramán digu Cadizko hondartzak. Euskalgintzari oso lotutako gizona, batez ere, euskal liburgintzan buru-belarri sartua. Apirilaren 16an eman zuen azken arnasa.

Familiarekin Aste Santuko oporrez gozaten ari zela, gertatu zen Cadizko hondartzan zoritxarreko istripua. Itsasoa harrotu eta alabek lehorrean iristea lortu bazuten ere, Joseba Jakak ez zuen zorte bera izan. Ur ugari irentsi eta arnasarik hartu gabe egon zen denbora luzez. Apirilaren 16ra arte, koma sakonean egon zen ospitalean.

Jakaren gorpua Cadizen bertan erraustu eta joan zen larunbatean, Aizkorri magaleko Beundan aireratuak izan ziren. Senide eta lagunek azken agurra eman zioten. Ehundaka lagun elkartu zen. Haize indartsuak astintzen zuen. Txalaparta, Liza-so, Peñagarikano eta J. Sarasuaren bertsoak, eta lagunen hitzak izan ziren. "Hego haize indartsua dabilenean, Joseba bizirik zegok" pentsatuko dut", adierazi zuen Joxan Ormazabalek.

Hitzen ondoren, emazteak eta alabek lehenengo, fa-



Emaztea, alaba eta anaiak errautsak aireratzeko unean.

miliartekoek ondoren, eta lagunek jarraian, Joseba Jakaren errautsak aireratu zituzten, txiruaren soinuaren laguntzarekin.

Saltzaile trebea

48 urte zituen Jakak. Zegamako Aristizahar baserrian, Otzaurten, jaioa. 9 urte zituela morroi joan zen Zegama bertako Aranzelai baserriara. 14 bete ondoren, Zumarragako Irimon pintxe bezala sartu zen. Hantxe hasi zen salmentarako zuen trebetasunaz jabetzen. Egunkarietako iragarki bati erantzunez, 'La Gran Enciclopedia del Mundo', Biblia mordoa, e.a. saldu zituen. Euskal liburuak ere bai, kredituzko salmentan ibili zen.

Euskaltzaleasuna

Soldaduskan euskaltzale-tu zen eta euskal liburuak

buru-belarri saltzen hasi zen. Liburuak saltzen poltsikoratzen zuten komisioren erdiak (orduante sortzen ari zen Ikastolen mugimendua) Ikastolarako testuak egiteko uzten hasi ziren.

Iparraldera joan behar izan zuen. Bide berdina jarraitu zuen. Jokin Apalategi ataundarrarekin batera, Za-

Beundan Joxan Ormazabalek Joseba Jakari irakurritako poesia.

Ekin, egin eta segi euskal kulturgintzaren alde gorputz eta arima.

Ekin, egin eta segi batzuetan langile besteetan gidari.

Ekin, egin eta segi gazi-gozaok gazi-gözo eta arazoak arazo.

bal liburudenda ireki zuten Baionan, soldadu joan aurretik irabazitako diruarekin.

76an, hegoaldera itzuli eta Bilintx ireki zuten Donostiako Fermin Calbeton kalean. Zabal-eko eskema berarekin: liburudenda eta banaketa. Kreditua eskatu behar izan zuten eta bere emazte Mari Jose Irizar beasaindarraren izeba Juanita (Beasaingo Aranburu zapa-terikoa) izan zuten abalista.

Arrakasta handia izan zuen. Betiko filosofiak hortxe dirau: ateratako irabazi guzti-guztiak kulturaren beharretarako sartzeta beti, be-raitzat ezer hartu gabe. Era honetan, liburuak sortu (Elkar), banatu (Zabaltzen) eta saltzeko (Bilintx) azpiegitura sortu zituzten.

Euskaldunon Egunkaria-ren fundatzailetariko bat ere izan zen.

Baina gaur Aizkorri da gure saminaren testigu, bizirik behar genuena halabehar txar batek eramán baitigu.

Agurrik ez, Joseba! Eguneroko lanak hurbil gaitzala gero eta gehiago hiregana. Eta zuei bere sendikoei une latz hauetan besarkada bana!



Tfona: 885500 ORDIZIA

GOIERRITARRA



88 96 12

Faxa: 88 27 19

Osinalde sariketa berezia 25. urtemugan

Lehenengo urratsa eman nahi duten bertsolariei zuzendutako Gabiriako Osinalde sariketa honek, 25. edizioa izango du aurten. Zilarrezko ezteiak ospatzeko, orain artean irabazle izan diren bertsolariak elkartuko dira. Aurten, beraz, ez da txapelketarik izango.

"Plazan dabilzan bertsolari gehienak hemen-dik pasatu dira. Abiapuntu izan da Gabiria bertsolarentzat", adierazi digu Iñaki Murua antolatzaileetarikoa batek. Ikusi besterik ez dago irabazleen zerrenda: Patxi Iraola, Luis Otamen-



Patxi Iraola da lehen irabazlea.

di, Xabier Zeberio, Mikel Mendizabal, Joan Inazio Begiristain, Millan Telleria, Jon Sarasua, Xabier Euzkitze, Loidisaletxe, Xabier Narbarte, Pablo Joxe Aristorena, Joxe Ramon Elortza, Joxe Munduate, Bernardo Azpillaga, Igor Elortza,

Maddalen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Pablo Suberbiola eta Bixente Gorostidi, besteak beste. Eus-kal Herriko bertsolari eta bertso-eskolen artean, izen eta izate errespetatu baten jabe egin da Osinalde.

Saio berezia

Saio berezia egingo dute bertsolariok: seiko 4 talde egin eta guztiek lan bera egin beharko dute. Sari bakarra: entzulearen ustez egokien aritu den seikotearentzat izango da. Hau guztia, ohi bezala, afaldu ondoren izango da. Osinalde elkartearen izango da afaria, gaueko 9etan, 2.500 pezeta-ren truke. Joateko intentziorik izanez gero, 886355-884259 telefonoetara deitu.

Ospakizunean bertsolari irabazleei eta sariketa hau antolatzen aritu direnei, oroigarri bana emango zaie.

Afalosteko bertso saioak elkarteetan

Aurten berriro ere afalosteko bertso saioak martxan jarri ditu Goierriko Bertso-eskolak. Iaz ez bezala, Tolosa eta Urretxuko bertso-eskolekin elkarlanean antolatu dituzte bertso-afariok. Inguruko elkarteetan izango dira, guztira 23 afari. Urretxu eta Tolosaldeko bertso-eskolek interesgarri ikusi zuten goierritarren ekimena, han-go gazteek ere arazo berbera baitute. Era honetan, elkar ezagutzen ez duten bertsolariek, nahastuta, egingo dituzte saioak.

Bertso-eskolan dabilzanak edo aritu direnak daukate bertso saio haue-
tan parte hartzeko aukera. Azken batean, plaza gutxi



Asteburu honetan Segura eta Ordizian arituko dira Eguren eta Munduate.



egiten dituztenak. 24 bertsolari arituko dira, horietatik 12 dira goierritarrak. *"Bertsolari gazteak plaza-
ra ateratzeko izaten duten aukera, txapelketetan izaten dute. Orduan, txapelketetik ihes egiteko asmoz antolatu ziren iaz bertso-afari hauek",* adierazi digute Argi-Berriko kideek. Era honetan, bertsolari gazteak ezagutzera eman, jendaurreko bertsogintzan trebatzeko aukera eman eta elkartearen laguntzaz bertso-

eskolen hormetatik kanpo ekimena gartu nahi da.

Iazko ekimenarekin gustora gelditu ziren bai bertsolari, bai bertsolazaleak. Horren adierazgarri dira aurten elkarte gehiagok parte hartuko dutela. 7 elkarteetan egin ziren bertso-afariak; aurten, Goi-errin, 11 elkarteetan egingo dira. Bertsolariak gai librean arituko dira. Apirila eta maiatzan izango dira saio gehienak, ekainean bi salbuespen izango dira. Afari guztiak iluntzeko 8.30etan eta izena eman nahi izanez gero, bertso saioak izango diren elkarteetara hurbildu.

Hamabostaldi honetan zehar egingo dituzten saioak hauexek izango dira:

* Apirilak 26:

Seguran, Elorri elkarteetan. Bertsolariak: I. Karre-
ra, I. Eguren, B. Gorostidi.

Ordizian, Itxaropena elkarteetan. Bertsolariak: J. Munduate, M. Aranburu, A. Sarasola.

Alegian, Intxurre elkarteetan. Bertsolariak: A. Jimenez, X. Nazabal, J. Ibar-guren.

* Maiatzak 3:

Zaldibian, Zubiburu elkarteetan. Bertsolariak: X. Narbarte, E. Goikoetxea, J. Aiestaran.

Ordizian, Azari elkarteetan. Bertsolariak: A. Sarriegi, I. Karrera, A. Otamendi.

Altzon, Elordi elkarteetan. Bertsolariak: B. Gorostidi, A. Agirre, I. Zubeldia.

Egunez eguneko egitaraua



> Apirilak 26, ostirala:

16:00etan: Haurren Xake txapelketa plazan.

19:30ean: Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

22:00etan: Bertso paperen saioa: Jon Enbeita eta Ireneo Ajuriarekin, Azeria Zineman.

23:30ean: Dantzaldia Drindots musika taldearekin.

> Apirilak 27, larunbata:

10:00etan: Jubilatuen ibi-

laldi neurtua. Helmuga Lazkao Txiki plazan.

11:00etan: Jubenil mailako saskibaloia kiroldegian.

12:00ean: Kanpai jotzea festen hasiera iragartzeko. Txupinazoa eta Zawopiko maskotaren aurkezpena.

12:30ean: Antzar Gazteak txaranga eta komitibarekin herrian zehar kalejira.

13:00etan: Haur jokuak plazan.

14:30ean: Gaztetxo bazkaria.

16:00etan: LIII. Lazkao proba: 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulari proba.

16:30ean: Jokuak eta Azkona pailaso taldea plazan.

18:00etan: Prudentzio Deunaren ermittan bezpera elizkizunak.

18:00etan: Senior mailako saskibaloia kiroldegian.

19:30ean: Neska arteko areto futbol partidua kiroldegian.

20:00etatik 21:30era: Dantzaldia Luhartz taldearekin, gaztetxoentzako musikarekin.

23:00etan: Buruhandiak plazan.

23:30ean: Zawopiko maskotaren pregoia eta ondoren maskotaren erreketak.

23:30ean: Dantzaldi ka-

rrorza' Luhartz taldearekin.

01:00ean: Mozorro festa.

> Apirilak 28, igandea: San Prudentzio eguna

9:00etan: Goizeresia herrian zehar Antzar Gazteak txistulariekin.

10:30ean: Prozesioa.

11:00etan: Prudentzio Deunaren ermittan meza nagusia.

12:30ean: Goierriko txistularien alardea eta Oin Arin dantza taldearen saioa, plazan. Ondoren Xapre eta Zaharra trikitilariekin poteoa.

18:30ean: Haurren danborradaren irteera.

20:30etik 02:00etara: Egan taldea.

Euskalerria, 34
AZPEITIA - ☎ 816179
Elosegi, 2
LAZKAO - ☎ 887490
San Inazio, 17
BEASAIN - ☎ 889707
Grazineberri-e
ATAUN - ☎ 180364

Okindegia

ERRATONDI

ARTANO
Arrandegia



Festa onak pasa!!!

Ubaitz, 2
☎ 88 24 44

LAZKAO

GASTEIZ

ILEAPAINDEGIA

Festa onak pasa!!!

Hirigoién, 24
☎ 88 05 83

LAZKAO

ANDERE
USAINDEGIA

- Depilazioak
- Solarium-a

Gurutze, 3
☎ 88 30 02

LAZKAO

M. ARTOLA
MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra.

Zubi Erreka, z/g
☎ 88 79 30

LAZKAO

IZASKUN
DROGERIA

* Lurrindegia eta pinturak
* Paper pintatua, kortxoa, sintasola, moketa eta antzekoen salmenta eta ezarpena.

Mikelar, 2
☎ 88 30 23

LAZKAO

OSAKI

* Senda belarrak
* Naturopata
* Masajista

Ana Mari Egea

Mikelar, 1
☎ 88 93 62

LAZKAO

EGYZKI - LORE
loradenda

- Andregai erramuak eta erregaliak
- Kotxe eta eliz apaintaketak
AMAREN EGUNEAN, MALATZAK 5, ZABALIK

Hirigoién, 24
☎ 88 49 65

LAZKAO

AINARA
ESTHETICIEN TITULATUA

- Argizari epel eta beroekin depilazioa
- Dekolorazioa
- Makilari eta aurpegi garbiketa
- Manikura eta pedikura
- Gorputz maisaiak

Mikelar, 2 (eskatu ordua aurrez)
☎ 88 30 23

LAZKAO

➤ **Apirilak 29, astelehena**

9:00etan: Goizeresia Antzar Gazteak txistulariekin.

10:00etan: Artesau azoka plazan: burdinlantze, argizarigintza, euskal bordatu, pilota egile, otargintza...

15:30etik 18:30era: Haur parkea.

18.30ean: Benjamin, alebin eta afizionatuen arteko pelota partiduak frontoian.

19:00etan: VII. sardina jate herrikoia plazan.

20:00etan: Buruhandiak.

22:00etan: Diskoteka gaztetxoentzat plazan.

➤ **Apirilak 30, astearte: kuadrila eguna**

9:00etan Goizeresia Antzar Gazteak txistulariekin.

12:00etan. Kuadrilen irteera tximeletak txarangarekin.

12:30ean: Jokuak, kuadrilek antolatuta.

18:00etan: Kuadrilen elkartzea plazan, txarangarekin.

18:00etan: Balleteko ikasleen ekitaldia kiroldegian.

23:00etan: Suak Ca-baller pirotekniaren



eskutik.

23:30ean: Dantzaldia Drindots taldearekin.

➤ **Maiatzak 1: asteazkena**

9:00etan: Goizeresia Antzar Gazteak txistulariekin.

9:00etan: Helduen xake txapelketa kiroldegian.

10:00etan: Eskualdeko IV. igeri lehiaketa igerilekuan.

12:00etan: Bakailao lehiaketa plazan. Patata tortila lehiaketa, etxetik eginak ekarri. Ordiziako Laguntasuna Rondallak herriko kaleak alaituko ditu.

12:30ean: Karate ekitaldia kiroldegian.

16:00etan: XVI. dantza suelta txapelketa.

16:00etan: Toka txapelketa plazan.

19:00etan: Tolosako buruhandi eta erraldoi konparsa.

20:00etan: Trikitixa, Iparragirre anai-arreben saioa.



Lazkaomendiko jaiak:

➤ **Maiatzak 4, larunbata:**

18:00etan: Haur jokuak.

20:00etan: Trikitilariak.

21:00etan: Auzoartekoen afaria.

23:00etan: Trikitilariak.

➤ **Maiatzak 5, igandea:**

9:00etan: Ibilaldi neur-tua, Lazkaotik atera eta Lazkaomendin amaituko da.

10:00etan: XX. Lazkaomendi proba. Gaztetxoek mailakoa.

11:00etan: Meza Nagusia San Juan Ante Portam Latinam deunaren ermittan. Udal Gorporazioa bertan izango da.

13:00etan: Azpillaga eta Mañukorta bertsolarien saioa.

17.30ean: Herri kirolak: txinga, trontza, koskol, lasterketa eta asto karrera.

18:30ean: Bertsolarien bigarren saioa. Ondoren Iparragirre anai-arreben saioa.



FESTAK ONDO PASA!!!

INTXAURRONDO

JANTZIAK

Ubaitz, 3

☎ 88 08 40

LAZKAO

OLARBIDE harategiak
festa onak opa dizkizue

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52

☎ 88 17 17

LAZKAO

Elosegi, 15

☎ 16 05 16



LASA
GOZOTEGIA
OKINDEGIA

etxerako zerbitzua

Festa onak pasa!!!

Irigoin, 20
☎ 88 11 54

LAZKAO




Euskara taldearen lehen urratsak

Hilabete batzuk badira jada herriko hiru gaztek (Koldo, Urko eta Aitziber) euskara talde bat sortzeko burutazioa izan zutela. Euskararen aldeko borrokan konpromezu handiago bat hartzeari beti ere onuragarri edo positiboa dela iritzi baitzioten, herrian zegoen eta dagoen egoerak ere hala eskatzen zuela ahaztu gabe.

Honela bada, berehala ekin zioten lanari burubelarri, eta dagoeneko hiru dira egin dituzten bilerak. Hau dela eta, herriko hainbat erakunde eta alderdi politikori luzatu zitzaion gonbitea, bakoitzak bere iritzia plazara zezan talde berriaren inguruan. Izan ere hor daukagu Goiherriko Euskal Eskola, euskararen aldeko ekintzengatik aski ezaguna duguna. Eta beraz, Lazkaoko Euskara Taldearen sorreraren komenientzia edo beharrezkotasunaz hitz egin zen beste zenbait gauzen artean. Baiezko iritzia nagusitu zen bertan, baina geroari begira, Goiherriko Euskal Eskola eta aipatu taldearen artean izan beharreko elkarkidetzaren garrantzia azpimarratu zuten bertan bildutakoek.

Hau guztia ikusirik eta Lazkaoko Euskara Taldea sortu berria dela kontuan izanik, zer herriko jaiak baino hobeto ekintzaren bat bideratzeko! Hasteko bederen, jaiak euskaldunagoak izan daitezen intentzioarekin, euskara taldekideek herriko tabernetan kasete ugari banatu dituzte, asmo hori bultzatu nahian. Hitz egiteaz gain, dasta dezagun musika euskalduna!



Futbola eta krosa

Kuadrilen arteko futbol txapelketa jokatu zen joan zen asteburuan. Manchester Unitedek Seapotori irabazi zion 8-2.

Era berean, XVIII. San Prudentzio krosean hauek izan ziren irabazleak: seniorretan Jose Javier Cuadrado; betaranoetan Mario Crespo; kadeteetan Oscar Garcia; infantiletan Iker Zudaire eta Ane Azkona; alebinetan Xabier Urdangarin eta Amaia Urbizu; benjaminetan Egoitz Iztueta.

Xake txapelketa

San Prudentzio jaietarako Lazkaoko Xake elkarteak bi txapelketa antolatu ditu. Lehenengoa apirilaren 26an, gaztetxoentzat izango da, arratsaldeko 4etan, Plazan. Maiatzaren 1ean bestalde, helduek parte hartu ahal izango dute. Bigarren txapelketa hau Kiroldegian, goizeko 9etan izango da. Argazkian iazko txapelketako partaideak dituzue.

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoi, 12

☎ 88 86 20

Tfno. mugikorra: 908 57 91 92

Faxa: 88 91 18

LAZKAO



S. A.

liburudenda

- ⇒ Liburuak
- ⇒ Jostailu didaktikoak
- ⇒ Eskola materiala
- ⇒ Bulego materiala

Elosegi, 16

Tfnoa.: 88 65 00

LAZKAO

ITXURRENE

TABERNA

Bazkariak, jaunartzeak, bataioak...

☎ 88 57 59

LAZKAOMENDI

IKER errekadista

Lazkao - Donostia zerbitzua

Eguneroko eraman-ekarriak

☎ 88 29 26 / Mugikorra: 908 - 77 14 11


Gurutze, 3 - 3.A

LAZKAO



Mundu-Bi
Berebilen elektro konponketa

Hiribarren, 17
Tfnoa: 88 74 58
LAZKAO



**HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA**

Madalena, 2 - Tlf. 88 19 95 LAZKAO



MAPFRE
ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!
Pello Barandiaran

☎ 16 13 61
Hirigoien, 18 LAZKAO



LAZKAO GARAJEA

Tfnoa: 882442 - 888901 Faxa: 888901
Senpere Industrialdea - LAZKAO



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA



**Eguneroko
arraultza
ezinobeak**

Olosegi, 25
☎ 16 09 71 LAZKAO

LAZKAOKO SAN PRUDENTZIO JAIK



**Lazkaoko
Udala**

Agurra
Agur bero bat lazkaotar guztioi.

San Prudentzio Jaiak atarian izanik, idatzi honen bidez poza eta alaitasuna opa dizuet, egun batzutan arazoak baztertu eta elkartasun eta festa giroa gure artean zabalduz.

Legealdi berri baten aurrean gaude. Udaleko zereginetan partiduen artean adostasun handia lortu dugu, herriko arazoei irtenbide egokiak eman nahian, baina hau ez da nahikoa, zuen, herritarron aportazioa, iradokizun eta kritikak... beharrezkoak ditugu gure lanen emaitza hobetu ahal izateko.

Baita, kultura, kirol, erlijio... eta arlo desberdinetan bere borondatez parte hartzen duten guztiak eskertu nahi ditut eta batez ere, orain arte horrelako ihardueretan parte hartzera animatu ez direnei gonbitea luzatu, horrela herri ireki eta jatorragoa lor dezagun.

Egun hauetan ere ezin ahaizu, arrazoi desberdinak direla eta, sufritzen ari diren lazkaotar guztiak. Azkenik, egun hauek festa giroan pasatzera gonbidatzen zaituztet bertaratuko zareten herritar eta kanpotar guztiak, aurtengo egitarauan prestatu diren ekintzetan parte hartuz.

Alkatea: Inazio Estensoro

BEASAIN

Orain dela bi hamarkada desagertu zen Loinatz abesbatzari berriro sorrera eman zitzaion 86an. Bigarren epe honetan 10 urte beti ditu aurten. Loinatz abesbatza Xabier Sarasolak zuzenduriko 35 lagunek osatzen dute. Hala ere, beste bi Loinatz abesbatz ere badaude: Loinatz-gaztea, 12 eta 17 urte bitarteko 30 neskek osatzen dutena (Xabi Sarasola dute zuzendari) eta Loinatz-txiki, 7-12 urte bitarteko 45 haurrek osatzen dutena (Nikolas Barandiaranen zuzendaritzapean).

10 urte hauetan ibilbide aipagarria egin du abesbatzak. Beraien helburu garrantzitsuenetariko bat Euskal Herrian ezagutzera ematea da. Hirietan eta herri txikienetan abestuz eta beraien musika eta folklorea ahalik eta gehien zabalduz. Horretaz gain zenbait lehiaketetan parte hartu dute: 90ean Aviles Hiriko Abesbatza lehiaketan 3. saria lortu zuten eta urte berean Kantabriako Caldas Santutegiko Abesbatzen Bilkurara gonbidatuak izan ziren. 92ko apirilean Aragoiko



Loinatz abesbatzaren lehen urteetako taldea. Honez gero batzuk utzi, besteak sartu... hortxe dabiltza.

Abesti Jaialdian lehendabiziko saria lortu zuten; eta urte bereko uztailan Kataluniako Cantonigrosek Nazioarteko jaialdian 5. saria eskuratu zuten.

Abesbatzaren historia eza-gutxera emateko eta urtemuga ospatzeko, abesbatzen ziklo bat eta beste zenbait ekintza antolatu dituzte, apirilaren 27tik maiatzaren 17ra arte. Apirilaren 27an Lizarrako abesbatzak kontzertua eskainiko du Andra Mari Zerutuaren Parrokian. Toki berean, maiatzaren 4an, Ordiziako Oroith abesbatzaren kontzertua izango da eta maiatzaren 11n Oretako

Landebaso abesbatza.

Maiatzaren 11n, Loinatz abesbatzak grabatu berri duen disko konpaktua aurkeztuko da. 15 abesti biltzen ditu eta Legin argiteletxeak argitaratu du. Marisa Olano pianojolearen laguntzarekin grabatu dute konpaktoa.

12an meza eta bazkaria izango da 10. urteurrena ospatzeko. Juanxo Alkaiaga, Loinatz Abesbatza elkartearen lehendakariari, omenaldia eskainiko zaio, abesbatzaren alde egindako lanagatik. Maiatzaren 3tik 12ra bitartean, 10 urteotan lorturiko sariak, ikasitako partiturak eta abar biltzen dituen erakuske-

ta egongo dira ikusgai, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan. Eta amaitzeko, maiatzaren 17an, Loinatz jaien hasierarekin batera, Loinatz abesbatzak eta Loinatz Gazteak kontzertua eskainiko dute Parrokian, azken 10 urte hauetan ohizkoa izan den bezala.

Erretiratuak mendizale

Aurreko aleetan eman dizuegu erretiratuentzat antolatutako mendi-ibilaldien berri. 20 lagunek taldea, gehienak emakumeak, prestatu da oraingoz ibilaldi hauetara. Oso giro onean egiten ari omen dira. 3 orduko ibilbideak egitea gutxi ez izan eta, abestuz, umore onean egiten dituzte ibilaldiak.

Hurrengo ibilaldia maiatzaren 4an egingo dute, Izarraizko mendikate aldera. Gurutze Gorria eta Aizkorri Mendizale Elkartearen laguntza izaten dute erretiratuek, eta erretiratu guztiei gonbitea luzatu nahi die anima daitezen.

Jzaskun Salazar

TXINDOKI INSTITUTUA



IKASKETA MOTAK:

- * BBB - BUP
- * IEE - REM
- * LOGSE BATXILERGOAK
- * ZEREGINEN IKASKUNTZAKO IKASGELA

Aurrematrikula: maiatzaren 2tik 17ra.

Ugartemendi, 6

Tel.: 88 07 53 - Faxe: 16 10 48

BEASAIN



- Ileapaindegia
- Edergintza
- Solariuma

Itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37 ☎ 88 02 97
BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

GABIRIA

Goruntz dantza taldearen 25. urteurrena

Goruntz dantza-taldearen 25. urteurrena dela eta, sortu zenetik gaur arte dantzan aritu diren guztiak elkartu ziren igande eguerdian herriko plazan egun hori ahalik eta ongien ospatzeko. Horrela, eguerdiko hama-bjak aldera hasi eta ordu biak aldera arte inoiz dantza-taldeko partaide izan diren 104 dantzarik makina bat dantza-saio eder eskaini ziguten, eta zaharrentxoek 35 urte inguruan ibili arren, oraindik ere forma ederrean daudela argi eta garbi erakutsi zuten, alaitasun eta trebezia haundiz dantza eginez.

Saioaren hasieran auzkepene eta omenaldia egin zitzaizen dantza-taldearen sortzaileei eta dantza-saioa amaitu ondoren frontoian elkartu ziren guztiak lagun



Goruntz dantza taldearen joan zen igandeko jarduna.

arteko bazkariaren bidez 25. urteurren horri amaiera emateko.

Makilari aldizkariaren 7. alea

Argitaratu berri den 7. ale hau, aurrekoak ez bezala, monografikoa izan da. Izan ere, dantza-taldearen eta bertsolari gazteen txapelketaren 25. urteurrena dela eta, bi gai horiei hel-

etzea erabaki zen eta 44 orritan zehar bada nahiko informazio eta argazki bi ekintza horiei buruz.

Etxe berriak eraikitzeko zenbait bilera

Azken urte honetan bada zenbait proiektu herri inguruan etxeak egiteko eta oraingo honetan frontoiaren atzeko aldean etxeak eraikitzeko proiektua eta make-

ta aztertzen aritu dira zenbait interesatu. Oraindik aurrerapausu handirik eman ez bada ere, badira lauzpabost interesatuta daudenak proiektu horretan eta eman beharreko urratsak aztertzen hasi direnak.

Kultur asteko zenbait ekintza

Apirilaren 19az geroztik burutzen ari garen Kultur Astearen barruan, larunbat honetan, apirilak 27, herriko eskolaumeen antzerki saioa izango da Parrokiko antzokian arratsaldeko 5etan. Iluntzean, aldiz, XXV. bertsolari gazteen txapelketa izango da Osinalde elkartearen. Bederatzietan afaria eta ondoren bertso-saioa eta aurtengoan nahiko berezia izango da.

Gabino Murua

IDIAZABAL

Kultur astea maiatzaren 4tik 12ra

Halaxe izango da bai aurtengo kultur astea. Hainbat ekintza antolatu dira, eta gusto baduzue, hona hemen eguneko eguneko ekitaldien berri.

* Maiatzak 4, larunbata:

22:00etan: Ttamtaka taldearen 'Umekeriak' antzezlanaren Guraso elkartearen aretoan.

* Maiatzak 7, asteartea:

19:00etan: 'Los problemas de la escolarización temprana en los niños' hitzaldia, Patxi Bereziarturen eskutik, Kultur Etxean.

* Maiatzak 8, asteazkena:

19:30etan: 'Landareen bizi-tzakako beste ikuspegi bat', Jakoba Errekondok eskainita, Kultur Etxean.



* Maiatzak 9, osteguna:

19:00etan: 'Ingurunea eta

gazte agresibitatea-biolentzia' hitzaldia Jesus Mari Mujikak, Kultur Etxean.

* Maiatzak 10, ostirala:

19:30etan: 'Nekazaritza, baratzagintza biologikoaren alternatiba gaurko egunean', Biolurreko lehendakari den Tomas Larrañaga eta Karmen Gimenoaren eskutik, Kultur Etxean.

* Maiatzak 11, larunbata:

17:00etan: VIII. Albisuko iguera, bizikleta karrera.

19:00etan: Txotxongilo taldearen emanaldia Guraso elkartearen aretoan.

21:00etan: Herri afaria pilotalekuan. Herriko trikitilari eta txistekontalariak bertan izango dira.

23:00etan: Trebeska dantza taldea pilotalekuan.

* Maiatzak 12, igandea:

Goiz eta arratsaldean, artisau erakusketa plazan. Arratsaldean talogileak izango dira. Herriko trikitilari taldeak alaituko du eguna.

ORDIZIA

Peria itxuraldaturik



Mantelak, poltsak eta baserria identifikatzen duen plaka jarri dituzte.

96ko lehen azoka bereziarekin batera, irudia berriztatua zuela agertu zitzaigun ohiko feria. Salmenta mahaietan mantelak, norbere baserriaren argazkia agertzen den plaka, triptiko informatzaileak eta periaren logotipoa duten paper eta plastikozko poltsak ikus zitezkeen. Guzti honen zergatia asteroko azoka sustatu eta salmentaren baldintzak hobetzea da.

Guzti honetarako batez ere baserriarrei zuzendutako araudi bat ere ezarri da. Batzorde bat egongo da guztia kontrolatzeko helburuarekin. Batzordea honakook osatuko dute: Ordizia-ko udalaren bi ordezkari, Goimeneko ordezkari batek, Goiekiren ordezkari batek eta baserriarren aldetik bi ordezkari. Honen funtsezko eginkizunak eskaera berriak berrestea, kontrol eta isun-lanak egitea (azaltzen diren auzi eta salaketak erabakiz) eta ekintza be-

rriak sustatu, proposatu eta burutzea izango dira.

Udako programak

Foru Aldundiak antolatuta ekintza ugari egiteko izango duzu gazte uda honetan. Besteak beste zuk aukeratutako udalekuren batera joateko aukera izango duzu edo kirol abenturako lekuak maite badituzu Biderrai, Baztan, Irati, Kantabria, Graoux edo Zuatzara joateko aukera izango duzu. Seguran aurren ere ingelezko hizkuntz egonaldiak antolatuak daude. Izenemateak maiatzaren 21a baino lehenago. Honi buruzko informazio gehiago nahi bezenu, hurbildu Gazte Informazio bulegora.

Gaztetxearen urtemuga

Zahartzen ari zaigula gaztetxea ere eta oraingoan beste urtebete bat gaineratu behar zaio, 10 guztira. Honetarako iragan asteburuan ekintzak antolatu eta eraba-

tez bete dituzte. Ostiralez pilotalekuan kontzertua Alaitz eta Maider trikitilari, S.A., Flitter eta Hamletekin, larunbatean hitzaldiak, bideo-emankizunak eta Stuart bakarlariaren musikaz gozatzeko aukera izan zen eta igandean bazkari goxoaren ondoren, gazteentzat lokalak eskatzeko asmotan manifestaldi batekin amaitu ziren gaztetxearen urtemuga ospatzeko ekitaldiak.



Oilo kaleko obrak

Herri-gune historikoa berritzeko planaren barruan agertzen da kale-zoruen erabateko berriztapena. Honetarako Udalak 400 milioi inguruko aurrekontua onartu zuen eta lanak hasteko Goitia kalea aukeratu zuten, trafikoa gabea eta ustez arazo gutxi emango zituen kalea izango zelakoan. Aurretik Herri Antzokia kanpalkaldean ipini zituzten orain Oilo kalean ikus daitezkeen losa berdinak. Goitia kaleko

obrak amaitu dituzte eta honetarako 8 milioi erabili dituzte. Hurrengo asmoa beste kale txiki bat berriztatzea izango da piskanaka plana osatzeko asmoz. Era berean, Enparantza Nagusiko obrak ere amaieran daudela adierazi.

Iparraldekoak bisitan

"Interreg" europar programa jarraiki, Iparraldeko 27 ikasle izan ziren Goierri Lanbide eskolan. Hauek Hazparneko St. Joseph lizeokoak ziren eta helburua hezkuntzak edo ezagutzak elkartrukatzeko zuten. Hazparneko lizeokoak Goierrikoak baino aurreratuagoak daude maketa elektrikoen gai horretan eta, aldiz, hemengoak soldaduran. Honela 27 ikasleek 20 orduko soldadurazko klaseak jaso dituzte, Orkli eta CAF bisitatu dituzte eta Oñati eta Donostiara irtenaldiak egin dituzte. Azkenik diploma bana eman zitzaion.

Mus txapelketa

Amaitu da aurren ere elkar-tearteko mus txapelketa eta garaile Argi-Berri elkarteko Joserra Jaka eta Patxi Tapia izan dira. Bigarren Itxaropenako Jose Mari Garmendia "Majori" eta Inazio Mujika geratu ziren. Elkarre bezela, berriz, Boxingek eskuratu du garaipena.

Aitor Calvillo



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6

88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

ATAUN

Gabillene berritzen



Apirilaren 9an hasi ziren Gabillene berritzeko lanak. Juan Barandiaran zenak Elizari utzi zion etxe hau, Kristau Heziketarako Ekintzetxe bihurtuko dute, hasieran kolonia-leku bihurtzea pentsatu bazen ere. Aldaketa batzuk izango ditu barru eta kanpo.

Kanpotik behintzat miradorerik gabe izango da. Barrutik, berriz, aldaketa handiak. Proiektua egin duen Errotaberriko Joxan Fernandez arkitektoak esan digunez, beheran sukaldea eta jan-lekua izango ditu, 80-100 lagunentzako moduan. Aparte komunak.

Lehenbiziko solairuan, ikasgelak izango dira batez ere katekesia emateko.

Eta goian, bi logela litzerekin. Bata emakumezkoentzat eta bestea gizonezkoentzat.

Guztira 40 bat lagunentzat etzalekuak izango dira. Aparte durtak.

Elizaren asmoa da, herriko eta kanpoko jendearen biltoki izatea, ihardunaldiak, konbibentziak eta abar egiteko.

Gabillene etxea aspal-dikoa dugu. 1680an ba zen. 1700 inguruan Juanikotegi izena hartu zuen baina XVIII. mendearen erdialdetik berriro Gabillene (Gabrielenea) izena mantendu du. Oraingo etxe hau, 1790ean egin zuten.

Artzainak eta ardiak gora begira

Urteroko martxan, gora bidean izango dira maiatzaren lehenbizikotik aurrera. Herrian 10 bat artzain dira artzaintzatik bizi direnak. Aralarren, herriko artzainen 4.000 buru izango dira.

Mankomunitatetik esan zaigunez, Ataungo 16 ardi-jabe daude izen emanda. Batzuk 400dik gora ardi dituztenak eta beste batzuk 20 eta 40 burukoak. Aralarren guztira 52 txabola daude eta horietatik 10-11 txabola dituzte ataundarrek.

Egunotan egin dute gainera, larrea ongarritzeko saioa, hegazkinen bitartez. Aurreko 2 urteetan egin gabe egon da, baina larrea pobrea dagoenez "abonoa" bota behar izan diote aurtan.

Eta Aralar aipatu dugunez, oraintxe 2 urte, 1994ko apirilaren 26an izendatu zuten Aralar Parke Natural.

Herria jario batean

Udalak jakinarazi duenez, ikaragarritzko ur pilak galtzen dira deposituetatik etxeetara bidean. Sipag enpresak egin du azterketa eta uraren % 67a galtzen da hodi edo tuberietan dauden ihesen ondorioz.

Guzti horiek konponitzeko lanak berehala egingo dira. Ura moztu behar izango da. San Martin eta Ergoienan daude arazo handienak eta pazientzia hartu behar.

Heriotzak

Doroteo Barandiaran Zurutuza. Don Juane Haundia etxekoa. Martxoaren 30ean hil zen 80 urte zituela.

Ramon Zurutuza Zurutuza. Lauztiberri baserrikoa. Apirilaren 4an hil zen, 64 urte zituela.

Jon Aizpurua

LAZKAO

Poza eta samina

Bi albiste nagusitu dira herrian apiril honetan. Alde batetik, Argider Mujika espetetik kaleratua izan zen hilaren 16an. 7 hilabete egin zituen Carabanchelen eta 500.000 pezetako fidantza ordaindu ondoren irten zen bertatik. Asteazkenean ongi etorri jendetsua egin zitzaion herriko plazan. Bertan txalaparta, txaranga, trikitixa, bertsoak eta hainbat opari izan zituen Argiderrek. Ondoren berriz Gerrikon afaria egin ondoren berandurarteko festa izan zen.



Albiste samingarria berriz, Arantxa Etxezarreta eta bere alaba Amaia heriotza izan zen. Burgosen auto istripu batetan aurkitu zuten heriotza. Atsekabe handia sortu zuen herrian berri txarrak.

Ordizian izan zen elizkizuna benetan jendetsua izan zen. Peio, bere senarra, guraso eta anai arreba atsekabeen lagun ditugu lerro hauetatik.

Baztango mutildantzak

Izenak adierazten duen bezala mutilen dantza da, gazte ezkongaien dantza. Baina joan den mendearen erditik ezkonduak eta mutilzaharrek ere dantzatzeko dute. Eta egun, saio oso ofizialak ez badira, baita emakumeek ere. Eskerrak, gainera, emakume-

ek animatu ziren, ze, bestela, Lazkaon Goiherriko Euskal Eskola K.E.ak antolatutako ikastaroa ia hutsik geratuko baitzen... Emakumea nagusi izan zen Patxi eta Jabier Larralde, aita-emeak, irakasle arizkundarren agindutetara ikasleen artean.

Guztira 19 mutildantza dira eta gutxi edo gehiago erdiak ikasi zituzten. Ea urtero urtero ikastaroa antolatu eta ikasi ondoren herriko plazan dantza egiteko moduan izaten garen.

OLABERRIA

Iurre auzoan festa usaina

Jose Maria Aristrain elkar-teak antolaturik, Iurre auz-ko jaiak hastekotan dira. Hiru egunetarako antolatu dituzte, apirilaren 30, maiatzak 1 eta 4. Egitaraua honako hau da:

*Apirilak 30, asteartea:

19:00etan: Kalejira trikit-xarekin eta buruhandiak. 22:30ean Izarra taldearen musika saioa. 24:00etan mozerro lehiaketa; hiru modalitate egongo dira: umeak, taldekakoa eta ba-nakakoa. 03.00etan txoko-late jana igerilekuan.

*Maiatzak 1, asteazkena:

10:00etan goiz eresia tri-kitxarekin. 11:00etan Me-za. 12:00etan Beasaingo Koxkola txarangak egun osoan zehar auzoa alaitu-ko du. 16:30ean mus txapelketa. 15:00etan ume jolasak. 20:30ean kalde-rette lehiaketaren amaiera. 23:00etatik 01.00era Koxkola txarangarekin kalejira.



Dantza ugari egiteko aukera izan zen Zaharren egoitzaren urtebetetze festan.

*Maiatzak 4, larunbata:

11:00etan marrazki lehia-keta umeentzat. 12:00etan kalejira trikitixarekin eta poteo herrikoia; Auzo el-karteko bakoitzari 4.000 pezeta emango zaizkio po-teorako. 17:00etan ume jo-lasak. 18:00etan toka txapelketa. 20:30ean tortila txapelketa. 23:00etan Iza-rra taldearekin musika saioa.

Zaharren egoitzak urtebete

Zaharren egoitzak bere le-

hen urtea bete du eta hori ospatzeko, apirilaren lehe-nengo egunean festa anto-latu zuten. Bertara gertura-tu ziren 100 bazkide ingu-ruk, arratsaldeko 6etan lunch-a dastatu zuten eta ondoren hainbat egunetan antolatu diren joku ezberdi-netako irabazleen sariak Agirre alkateak eta gizarte zerbitzuko zinegotzia den Pruden Beaskoak. Gaua ongi amaitzeko, Juan Jose Iturrioz soinu-joleak zenbait pieza eskaini zituen.

Bestalde, Zaharren egoitzaren gaineko bi gela berritu behar ditu Udalak. Bata, urte osoan zehar es-kaintzen diren ikastaroak bertan emateko; eta bestea, Zaharren egoitzako zuzen-daritzak bilerak egiteko eta ileapainketarako. Bi gela hauek berritzeko 5 milioi inguru gastatuko dira.

Pala txapelketa


Apirilaren 13an hasi zen aurtengo pala txapelketa eta hauek dira partehart-zaileak: Arregi-Kereje-ta, Garrido-Aranburu, Markos-Pontxito, Etxa-rrri-Telleria, Albisu-X.Berasategi, Sarasola-Aierdi, Andonegi-Txur-do, Giralt-Tobar, Arrie-ta-A.Berasategi eta Ugartemendia-Mingo.

Nagore Goiburu



SIDERURGICA ARISTRAIN OLABERRIA, S.L.

ALTZAIRUGINTZA ETA PROFILEN LAMINAKETA



- Profil estrukturalak.
- Palankilak, blooms-ak, slabs-ak eta semieslabs-ak.
- Hotzean laminatutako txapa magnetikoa.

8 Posta Kutxa

Madrid-Irun errepidea, z/g

20200 BEASAIN

20212 OLABERRIA

☎ 88 03 00


FAXA: 88 04 04

ZALDIBIA

Jarrairen bilkura

Orain hurrengo GOIERRITARRA atera zenetik hona Zaldibian gertatu den gauzarik deigarriena, dudarik gabe, Jarraik Aste Santuan egindako bilkura izango da. Joan den urteetako ohiturari jarraiki kanpoan izan naizelako neu zuzenean testigu izan ez banaiz ere, saia nadin herrira itzuli ondoren jendearengandik jaso ditudan inpresio eta iritziak papreratzen.

Iritzi sailean aurren-aurrena aipatu nahi duguna da Alkatearena berarena. Hain zuzen, Alkateak sinaturik orri bat plazaratu du Udalak, "Zaldibia gazteriarekin eta harro!" izenburupean. Titulu hori irakurrita dena esana dagoela uste dugu, baina oraindik beste izpi batzuk gehiago zeharrraldutako ditugu gurean: "Zer izango zen ez genekien eta hainbeste jende pilaketak sor zezakenezaren beldurra, dagoneko ustela gertatu da". "Ostegun goiza... irudi izugarria Zaldibiko Klean". "Pozik eta harro sentitzen gara gure herri txikia Euskal Herriko gazte topagune izateaz". "Behingoz oinez-



koak aurre hartu autoari, zein ongi!!". Ondoren, zorionak eta eskerrak banatzen ditu alkateak alde guztietara. Eta "1996ko apirila. Zein bibentzi ederra!" deiadar eginez amaitzen du. Esan gabe doa Udala HBk gobernatzen duela.

Oro har, jendea bat dator: espektakulu eta ikuskizun handia izan dela eta ondo joan dela uste du. Antolatzaileek programa eta helburuak betetzat eman dituzte. Merkataria eta tabernaria ez dira haserre, lan asko egin omen dute. "Santafetan baino askoz ere lan gehiago" aitortu digu batek baino gehiagok.

Bestalde, Alkatearen orrian ere antzeman daiteke hori eta jendearen alde aurretiko beldurra, gauza askorengatik, justifikatuta zegoen irudipena atera dut zenbait komentario entzun ondoren. Bada, oraingoan ondo atera bada ere, Zaldibian

ez duela horretarako baldintzarik pentsatzen segitzen duenik. Ez da falta zaldibitarren libertatea egun horietan sekuestaturik egon dela uste duenik ere: "kaminioak itxita...".

Beste batzuek adierazi digute Jarrairekin sintonizatzen duen jende asko ezer pasa ez izana eten gabe aipatzen eta goraipatzen ari dela, ezer ez pasatzea harrigarri balitz bezala. Eta hauxe erantsi diote aurrekoari: "Gizalegez eta errespetoz beti eta toki guztietan porta daitezen eskatuko genieke guk Jarrai eta bere ingurukoei, ez beraiei komeni zaien tokian bakarrik".

Ordiziako Eroskitik karroak hartu eta Zaldibiraino ekarri izanari buruz iritzi kontrajarriak daude. Batzuentzat ganberrada onartezina den bitartean beste askorentzat anekdota hutsa da. Nolanahi ere, puntu batean kontsensu osoa somatu dugu: denei iruditua zaie gaizki lehenengo egunean Guardia Zibilak kontrola ipini izana. "Eskerrak hasieran bakarrik izan zen" atera zaio edadeko andre bati.

ZUTen oharra

ZUTek honako ohar hau bidali digu sail honetan argitaratu dezagun: "Azkeneko GOIERRITARRAn, eskutitzen sailean, Zaharra eta Potori izenburupean Zaldibian Amnistiaren Aldeko Komiteak sinaturik, beste askoren artean honako perla hau aurkitu genuen: Udaletxea ere HBk gobernatzen dik, baina lehen ZUTekoek zien gehiengo eta bazirudian mundua jan behar zutela, baina egia esateko, etzien asko falta izan ez mundua jateko, zeren utzi zituzten zuloak kristorenak dituk".

Eta honela segitzen du ZUT-en komunikatuak: "Sendatzen ez den ezjakintasunak edo borondate gaiztoko izaerak bakarrik esanarazi ditzake horrelako astakeria onartezinak. ZUTek utzi duen "zulo" bakarra ondo beteta utzi du, hau da, Udala hartu zuenean baino miloi mordoa gehiagoko ondea publikoa herriarentzat: erosturak eta obra berrietan lokalak, etab. Ikusi nahi duenak horren berri ondo baino hobeto daki, baina ikusi nahi ez duena bainoitsu okerragorik ez dagonez, alferrik da zenbaitekin hizketan aritzea".

Rufino Jraola



GOIERRITARRA
OKINDEGIA
Ogigintzan onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ♦ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



Sagardotegia
aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

ZEGAMA

Juan Telleria konpositoreari omenaldia

Iaz Juan Telleria Arrizabala jaio zenaren 100. urtemuga zela eta, Erreterriako Musikasten bere zenbait obra interpretatu ziren. Horik jarraituz, bere obrei buruzko informazio txostena lortu zuen Kultur Etxeak, bere musikaren berri zuzen zuzenean izan zezan.

Besteak beste, 1917an Zegamako herriak Juan Telleriari egindako ongi etorriaren berri izan zen, Madrilen 'Aitzgorriko dama' izeneko saio sinfonikoak izan zuen arrakastarengatik.

Txosten hau aztertzean, Telleriak musikari bezala maila handia izan zuela ikusi zen, politika dela medio ('Cara al Sol' musika eta ez letra sortu baitzuen) beti baztertuta izan den arren.


Herrian aipatutako musika horregatik bakarrik eza gutzen delarik, Kultur Etxeko batzordeak, bere obra guztia ezagutzera ematea beharrezkoa ikusi du eta musikari bezala omenaldi bat eskaintzea.

Juan Telleria ezagutuz

1895eko uztailaren 12an Zegaman jaio zen. 7 urte zituela umezurtz gelditu eta bere osabak, Baldomero Telleria apaizak hartu zuen bere kargura beste 4 anaiekin batera. Berarekin egin zituen solfeo, piano eta harmonia ikasketak.

1911n, Gipuzkoako Diputazioaren pentsio apal bat irabazi zuen eta Donostiara abiatu zen German Zendoia eta Beltran Pagolarekin ikasketak sakontzera. Era berean, antzerki eta zinema saioetan pianoa jotzen zuen eta horrek bat-batean jotzeko erreztasun handia eman zion. Erreztasun horri etekin handia atera zion musikari lanetan arituzenean.

1915ean Madrila jon zen eta bertan konposizioa ikasi zuen Conrado del Camporekin eta pianoa Fernandez Alberdirekin. Espainiako hiriburura itzuli ondoren, kafetegietan pianoa jotzen aritzeaz gainera, elizako organujolea eta pianoko irakaslea izan zen bere etxean. Julian Gayarrerren bi iloba izan zituen ikasle.



1916an hasi zen 'La dama de Aitzgorri' saio sinfonikoa idazten hasi eta 1917ko irailaren 29an estreinatu zen Donostiako Gran Casinon. Fernandez Arbos maisuak gustokoa izan zuen eta urte bereko azaroaren 17an programatu zuen Madrilen Orkestra Sinfonikoarekin. Arrakasta handia izan zuen eta honen ondorioz, Zegamako he-

rriak omenaldi sutsua egin zion, 22 urte besterik ez zituenean. Baina hala ere 'La dama de Aitzgorri' ez zen gehiago jo 1952ra arte, Espainiako Orkestra nazionalak Ataulfo Argenta-ren zuzendaritzapean jo zuen egunera arte, hain zuzen.

1919an Parisa abiatu zen eta beste zenbait aretoren artean Gaumont zinemalekuan jo zuen pianoa. Gero Alemaniara joan zen eta 1925ean Espainiara itzuli.

1927tik 1947ra musika lirikoa landu zuen eta bide batez 'El cabaret de la Academia', 'Los blasones', 'El joven piloto' eta 'Las Viejas ricas' lanak ekoiztu zituen. Era berean, ganbara-musika 'Aizean barnan' liedra, koruetako lanak eta himnoak, 'Cara al sol' kantua barne.

Ekoiztu zituen musika lan gehienak argitaratu gabe daude. 1942an, Sindicato Nacional del Espectaculo erakundeak urrezko domina ezarri zion. 1946a arte ganbara-musika katedra bete zuen Musikako Errege kontserbatorioan. 1949ko otsailaren 25ean zendu zen Madrilen.

Eduñe Albizu

Omenaldiko egitaraua

* **Apirilak 26, ostirala:** Iluntzeko 8etan, Jose Luis Ansorenak, Juan Telleriaren bizitza eta obrari buruzko hitzaldia emango du Kultur etxeko areto nagusian. Ondoren Xabier Azurmendik, Juan Telleria ezagutu zutenen hitzak eta oroimenak agertuko dizkigu, horretarako egingo duen bilketa dela medio. Hitzaldi honetan Juan Telleriaren zenbait obra entzungo dira tartekatuz.

* **Apirilak 27, larunbata:** Iluntzeko 8.30etan kontzertua, Erreterriako Andra Mari abesbatza eta Laukotearen eskutik. Juan Telleriaren hainbat obra eskainiko dituzte.

Bi egunotan, Udaletxeko Batzar aretoan erakusketa izango da ikusgai. Ordutegia: ostiralean 5etatik 8etara; larunbatean 11etatik ordu bietara eta 5etatik 8.30etara.

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerria Kalea
Industrialdea

☎ **88 04 15 ORDIZIA**
☎ **16 07 07 OLABERRIA**

GOIERRITARRA



88 96 12

SEGURA

Egundoko apustua eta marka



Xepeñok, Martxeliño Agirre izan zuen laguntzaile eta Jexux Marik, Joakin Izagirre. Argazkian, laurak, federaziokoekin batera.

Bolalekuak berak ere hartarako laguntzen zuela eta, aspalditxotik zuen Xepeñok Agirrek, marka handi bat ezartzeko gogo. Jexux Mari Intxausti tentatu, eta honi 4 bolaren diferentzia emanaz gauzatu zen desafioa; Bola federazioak jasoa duen handiena: Xepeñok 100 eta Jexux Marik 104 bola botata, zeinek berla gehiago jo. Elurtearen ondorengo zapatuan, otsailaren 24an, 16:00etan, Segurako "Txoritegi" bolalekuan, Gipuzkoako bola-federazioko Migel Arrospide lekuko zela, hamarnako txandetan eta bi ordu pasatxotan, Xepeñok 587 berla jo zituen (ia 6ko batzbestekoa); Jexux Marik, berriz, 563, azkeneko txandan 14 bola botatuz. "Marka ikarraarrie da. Jexux Marik azkeneko botalditan fallau zon pixkaat, bestela enion iraziko".

Afizio handiko herria

1978, 84 eta 85ean, Espainiako txapeldun izan zen Xepeñok, 12 bolatoki ere ezagututakoa da herrian. Beheraldetik hasita, Argintxen, Merkatagin, Madalenen bi, Aizkoetaerdiko Muttegin, Aizkoetako Etxesagastin, Jermanenen, Aldataerdin eta Kortaberrin; herri barruan, berriz, bolaleku zaharra, portio-

kopekoa eta gaurko frontoi ondokoa. "Bolarik, nere garaikoak, onak, asko izan die": Meñoneko Xabin eta Antonio, Pedroneko Ximon eta Xebastian, Txomiñeneko Iñaxio eta Joxeba, Madalena haundiko Antonio eta Joxe, Aizkoetako Lontxo, Eleuterio eta Joxe Mari, Atalamastegiko Joxe Mari eta Antonio zirenak, Migel Telleria zena, Joxe Mari Elorza, Gregorio Artola, Joxe Mari Zabaleta, Xanti Arrue, Blax Izagirre, Jokin Izagirre,... aipatu ditu Xepeñok akordautakoen artean.

Orain, noizean behin aritzen badira ere, lehen, herriko bolaleku zaharrean, uda partean, diru apur bat jokatuz, iluntzero izaten zen bola saioa. Lehenago, berriz, baserrietako bolalekuetan, ko-

txineta, koneju edo oilasko pareren bat irabazlearentzat jarrita, jai arratsaldero.

Beheko barrioko eguna

Maiatzaren 3an, Santa Kruz egunean ospatuko dute bolalekutik beherakoek beren eguna. Iluntzeko 19:30ean, auzoan hildakoen aldeko meza emango da Beheko Kurutzan, eta ondoren mokautxoa izango da bertaratuko direnentzat. 21:00etan, berriz, beheko barrioko afaria Guraso Elkartean. Afarirako izenak, Antonkalenen eta Jermanenen eman behar dira.

Gurutze Deunaren proba

Zapatuan, maiatzaren 4an, Segurako Txirrindulari Elkartek antolatuta, jubencil mailako XXII. Gurutze deunaren proba izango da, Jabier Ormazabalaren oroimenez. Irteera, arratsaldeko 16:00etan emango zaio etapari, 96 Km. egin ondoren, 18:25 aldera bukatzeko. Txirrindulariek, helmuga baino 4 km. lehenago, Liernia igo beharko dute Ormaiztegi aldetik.

Karrerako sari banaketan ondoren, toka saioa izango da Jermanene aurrean, eta animazioa Antonkalene tabernan.



Martxoaren 31n jakinarazi ziren, III. Elorri idazlan lehiaketako irabazleak. Hurrenez hurren, "A" sailean: Garazi Goia, Naiara Goia eta Etor Telleria. "B" sailean: Maitane Salsamendi eta Eider Goia. "D" sailean: Sebas Telleria eta Garikoitz Oiharbide. Argazkian, irabazleak, epaimahaikideak eta 36 partaideetako gehienak.

Labur labur

*Plazan zeuden bi arbola igartuak atera, eta berriak aldatu dituzte. Gainerakoei, euskarriak kendu dizkiete, aldeon baino kalte gehiago egiten baitzien.

*Apirilaren 21ean egin zen Santa Engrazi ermittan, baserriarrek eramandako ur eta soro-baratzetan ereittekot hazien urteroko bedeinkazioa.

*Apirilaren 22an amaitu ziren, Laiotz Herri Eskolako irakasleei eskaini zaizkien euskara klaseak. Hobekuntza ikastaroa 20 ordutakoa izan da, irakaslea AEKkoa izan dute, eta 14 irakasle aritu dira ikasle modura.

*Goierriko, Tolosaldeko eta Urretxuko bertso eskolek antolatuta, II. afalosteko bertso saioen barne, apirilaren 26an, 20:30ean, bertso afaria izango da Elorri. I. Karrera elduaiendarra, I. Eguren beasaindarra eta B. Gorostidi amezketarra arituko dira.

*Lazkaoko festak aprobetxatuz, 1958, 59, 60, 61, 62, 63, 64 eta 66an jaiotakoek behintzat, urteroko kinto afaria egingo dute apirilaren 27an. Aurrez, San Josetako asteburuan ere, dozena erdiren batek izan zituzten afariak. Tartean, berriz, 1969an eta 1950ean jaiotakoek egin zuten berea.

*Elorripe tabernak Errioxarako bidaia antolatu du maiatzaren 4rako. "Lau-Bat" eta "Heredad de Aduna" bodgak bixitatuta, azken honetan egingo da bazkaria. Autobusa eta bazkaria, 4.500 pzta. Izenak Elorripen, lehenbait lehen.

Joseba Telleria



Lazkaoko "Ames" abesbatza 1961. urtean

Joxe Mari Aranburuk eskuratu digu argazkia. 35 urte dituen argazkikoak zeintzuk diren berak eta Manueleneakoek jakinarazi digute.

Zutik gizonetzkoak: Imanol Auzmendi, Andoni Agirre, Imanol Aldaregia, Iñaki Barandiaran, Jabier Urrea, Florentino Larrañaga, Migel Garmendia, Joxe Belamendia, Joxe Antonio Bereziartu, Joxe Aldasoro, Joxe Barandiaran eta Jesus Mendia.

Zutik emakumezkoak: Arantxa Ormazabal, M^a Pilar Zunzunegi, Ana Mari Aldanondo, Angelita Imaz, Pilar Arratibel, M^a Angeles Aldasoro, M^a Angeles Etxeberria eta Milagros Madrazo.

Makurtuta: Juan Jose Crespo, M^a Dolores Auzmendi, Irene Bitoria, Iñaki Ormazabal (zuzendaria), Juani Barandiaran, Maribel Larrañaga eta Gurutz Barandiaran.



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00



MUJIKA
Jatetxea

- Menuak kartan
- Ezkontza eta janaldietan berezituak
☎ 80 15 07 - 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

GAUR

KARROZATEGIA

Auto konponketa - margoketa

Mendizalbal baserria
☎ 88 86 09

LAZKAO

URBITARTE
sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

LAZKAOKO FESTETAKO GIROA

ZELATA TABERNA

*Giro ezin
hobea!*

Uhaitz, 1
LAZKAO

MANUEL-ENEA

TABERNA

*Festa onak
pasa!*

☎ 88 20 29
Elosegi, 5
LAZKAO

GERRIKO TABERNA

Eguneroko Bazkariak
Afariak

☎ 88 99 43
Elosegi, 16
LAZKAO

ALBOKA taberna



Pintxo bereziak
eta otartekoak

☎ 88 7197
Uhaitz, 2
LAZKAO

ESTANKO TABERNA

Festa zoriontsuak opa
dizkizue denoi

Elosegi, 7
LAZKAO

GURUTZE TABERNA

*Nagusi berriekin
festetako zabalik*

Pintxo eta
ogitarteko
bereziak

Gurutze, 1
LAZKAO

DORRAO TABERNA

Ondo ibili
festetani

Elosegi, 4
LAZKAO

ANSOATEGI HERRIKOA

Festak ondo
pasatzeko
txokoa

☎ 88 68 52
Elosegi, 15
LAZKAO

GIROA TABERNA

Pintxo ederrak
jateko aukera

☎ 88 77 40
Areso, 6
LAZKAO